

ISSN: 2530-6561
2017ko apirila
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Garapena feminismotik aztertzen

Yolanda Jubeto Ruiz
Mertxe Larrañaga Sarriegi

Garapena feminismotik aztertzen

Yolanda Jubeto Ruiz
Mertxe Larrañaga Sarriegi
Hegoa Institutua
Ekonomia Aplikatua I Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Genero harremanak garapenaren pentsamendu klasikoan	5
2.1. Genero harremanak Modernizazio teorian	5
2.2. Emakumeak Garapenean ikuspegitik Genero eta Garapena Ikuspegira	6
3. Garapenaren eztabaida ortodoxoari egindako ekarpen kritikoak	8
3.1. Ekarpen postkolonialak	8
3.2. Ekarpen ekofeministak	9
3.3. Ekonomia Feministaren ekarpenak instituzioen inguruan	10
4. Giza garapenaren ikuspegia	13
5. Garapenaren bilaketak jarraitzen du: ekonomia solidarioaren aldeko proposamenak	17
6. Ondorioak	20
Bibliografia	20

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Garapena feminismitik aztertzen

Egileak: Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi

hegoak zabalduz - 3. zk. 2017 apirila

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commonsen lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España.

Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Artikulu honek garapenaren inguruko hausnarketa egitea du helburu, feminismotik abiatuta. Ibilbidea garapen klasikotik hasiko dugu, eta hainbat kritika eta kontzeptuei helduz gaur egungo ekarpen batzuetara iritsiko gara. Hasieran, garapenaren pentsamendu klasikoa deitu dugunaren hainbat ardatz azalduko ditugu, eta, bertan, modernizazioaren teoria, emakumeak garapenean eta generoa eta garapena gaiez arituko gara. Hori ikusi ondoren, garapenaren pentsamendu ortodoxoari egindako hiru ekarpen kritiko komentatuko ditugu, pentsamendu postkoloniala, ekofeminismoa eta ekonomia feministak egindako ekarpenak instituzioen inguruan. Hurrengo atalean, Giza Garapenaren ikuspegia landuko dugu, horrek garrantzi handia izan du, eta ekarpenen artean garapenaren kontzeptua bera zalantzan jarri izana aipa daiteke. Bukatzeko, proposamen berriei helduko diegu, eta horien artean Ekonomia Solidarioan zentratuko gara.

Hitz gakoak: Garapena, giza garapena, feminismoa, ekofeminismoa, ekonomia solidarioa.

Abstract: The aim of this article is to reflect on development from a feminist perspective. The path followed starts by the contributions of classical development thought, and by means of a short analysis of some concepts and critical proposals, several current contributions are explained. In the first place, some main axes of what we have called classical development economics are taken into account, putting the focus especially on the role modernisation theory gave to women and so explaining how Women in Development and afterwards Gender and Development arose. Secondly, some relevant critical contributions to development studies are summarised; those are, postcolonialism, ecofeminism and feminist economics. In the third part, the human development approach is described as it has also been very relevant in the construction of alternative development thought. Finally, some new proposals are included, and some clue elements of Solidarity Economy are analysed.

Keywords: Development, human-development, feminism, ecofeminism, Solidarity economy.

1. Sarrera

Azken hamarkadetan, mendebaldeko garapen-agentzia nagusien diskurtsoan garapenaren inguruko eztabaidaren interesgunea aldatu dela ikusi dugu. Labur esanda, garapena lortzeko moduari buruzko eztabaida garapenaren edukiaren inguruko polemika bilakatu da. Horrela, hamarkada askotan aldeztu zen garapenak hazkunde ekonomikoarekin hain lotura estua zuela, non bi kontzeptuak zenbaitetan sinonimotzat hartzen ziren. Beraz, lortu beharreko hazkunde-maila lortzea zein eredu ahalbidetuko zuen eztabaidatzen zen, joera kapitalistako ala joera sozialistako eredu batek. Hala ere, proposamen bietan adostasuna zegoen, batean zein bestean industrializazioa izango baitzen lortzeko bidea.

Jakina, azken hamarkadetan ortodoxiarekiko korrante kritiko asko garatu dira, eta horietariko batzuk azterketa arazo edo esparru konkretuetan burutu dute; beste batzuk, aldiz, bere oinarri ideologikoak kolokan jarri dituzte. Honela, ekarpen postkolonialak Mendebaldearen hegemonia azpimarratzen du, eta harreman hegemoniko horiek gainditzeko gogoetak egiten ditu. Ekofeminismoak berriz feminismo eta ekologismoaren arteko loturak aztertu ditu. Ekonomia Feministaren ekarpenak sexu-genero sistemak sorrarazi dituen botere harremanari eta bere ondorioei buruzkoak dira, eta, beraz, oso zabalak dira, baina testu honetan bakarrik instituzioen inguruko hausnarketa azaltzea erabaki dugu.

Maila teorikoan, eztabaida garapenaren kontzeptuaren beraren edukia zein den zehaztera lerratu da: hazkunde ekonomikoa *per se* ala giza garapeneko eta bizi-kalitateko esparru zabalago bat. Giza Garapenaren ikuspegia (Gaitasunen ikuspegia bezala ere ezagutzen da) XX. mendeko azken hamarkadetan garatuz joan da. Bere jaiotzaren arrazoi nagusietariko bat izan zen garapenari buruzko nazioarteko eztabaidetan ikuspegi ekonomiko-utilitaristari erantzun bat eskaintzea. Ikuspuntu praktikotik, berriz, bestelako garapena bultzatzeko proposamen "berriak" ere indartzen joan dira, eta horien artean Ongi Bizitzea eta Ekonomia Solidarioa aipatu daitezke.

Artikulu honen helburua zera da garapenaren inguruan hausnarketa egitea feminismotik abiatuta. Ibilbidea garapen klasikotik hasiko dugu, eta hainbat kritika eta kontzeptuei helduz gaur egungo ekarpen batzuetara iritsiko gara. Lan hau lau zatitan antolatu dugu. Lehenengoan, garapenaren pentsamendu klasikoa deitu dugunaren hainbat ardatz azalduko ditugu, eta bertan modernizazioaren teoriaz, emakumeen garapenaz eta generoa eta garapenaz arituko gara. Hurrengo atalean, garapenaren pentsamendu ortodoxoari egindako hiru ekarpen kritiko komentatuko ditugu, pentsamendu postkoloniala, ekofeminismoa eta ekonomia feministak egindako ekarpenak instituzioen inguruan. Hirugarren atalean, Giza Garapenaren ikuspegia landuko dugu, honek garrantzi handia izan baitu, eta ekarpenen artean, garapenaren kontzeptua bera zalantzan jarri izana aipa daiteke. Laugarren atala proposamen berriei dagokio, eta horien artean Ekonomia Solidarioari, hain zuzen ere. Testua ondorioekin amaituko da.

2. Genero harremanak garapenaren pentsamendu klasikoan

2.1. Genero harremanak Modernizazio teorian

Garapena lortzeko moduari dagokionez, 1950eko hamarkadako hastapenetatik, Iparraldetik Hegoaldeko herrialdeei aplikatu zaizkien garapen-politikak modernizazioaren teorian oinarritu dira. Teoria horren arabera, aldaketa-prozesu aldebakar eta ebolutibo bat abian jartzean zetzan garapena, jendarte tradizionalak ustez bizi ziren atzerapenetik ateratzeko, etapa batzuetan zehar, modernitatea lortu arte (masa-kontsumoko gizartea) (Rostow, 1960). Modernizazioak, hortaz, gizarte aurremodernoak haien alderdi guztietan eraldatzea zekarren berekin, haien balioak, kulturak eta instituzioak aldatzea.

Modernizatzeko proposamen horrek, gizonak eta emakumeek prozesu horretan bete beharreko eginkizunari buruzko ikuspegi esplizitu edo inplizitu bat izan du. Gizon modernoak ekonomia-teoria neoklasikoak proposatzen zuen gizon ekonomikoaren parekoak ziren; izan ere, kasu batean zein bestean, haien ezaugarri nagusia jokaera arrazionala zen, jokaera hori beti gidatzen zutelarik autonomiak, norberaren interesak, norberekoikiari, dinamismoak, berrikuntzarako gaitasunak, lehiakortasunak eta arriskuak hartzeko gaitasunak.

Emakumeei zegokienez, hasieratik pentsatu zen modernizazioranzko aldaketa orok onura ekarriko zirela, bai lan-merkatuan sartuko zirenei bai etxeko lanetan eta zainketetan baino arituko ez zirenei. Uste zen, besteak beste, aldaketa teknologikoko prozesuek etxeko lanetan denbora gutxiago ematea ahalbideratuko zirela eta honek emakumeen merkatuzatzea lagunduko zuela. Jakina, ez zen inoiz ere kontuan hartzen lan horiek gizonekin partekatzeak aukera. Ekonomisten artean garapenak emakumeentzat izango zituen ondorioen aipua beste diziplina (adibidez soziologian) batzuetan baino urriagoak izan baziren ere, Kabeerrek (1998) jasotzen duenez, jarreraren bat hartzen zutenean, emakumeek prozesu horietatik beti onuradun aterako zirela irizten zioten. Hala, Arthur Lewisek, Hirugarren Mundurako hazkunde industrialak aldeztu zuten ekonomisten artean eragin handiena izan zutenetako batek, aditzera eman zuen hazkunde ekonomikoa emakumeentzat onuragarria ote zen eztabaidatzea zela "emakumeek zamabere izateari utzi eta gizateriarekin bat egiteko aukera izan beharko luketen eztabaidatzea bezalakoa" (Lewis, 1955).

2.2. Emakumeak Garapenean ikuspegitik Genero eta Garapena Ikuspegira

XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan, modernizazioaren teoria babesten zuten ekonomistek, emakumeak aipatzen zituztenean, garapen-programen onuradun pasibotzat jotzen zituzten gehienetan, eta haiengan ama- eta zaintzaile-rola nabarmentzen zuten nagusiki. Dena dela, azpimarratzekoa da garapenerako lankidetzaren arloan gertatu zela 1960ko hamarkadaren hasieran genero-harremanen inguruko politiken neutraltasunari buruzko eztabaida aitzindaria. Aipatzekoa da, garai horretan Afrikako Mendebaldeko emakumeek, Margaret Kennytaren lidergopean, zenbait mintegi antolatu zituztela garapen prozesuetan emakumeen aldeko estrategiak eraikitzeak (Reddock, 2000). Halaber, hamarkada horretan, pobrezia-aren aurkako ikuspegian, herrialde askotan elikagai-buruaskitasuneko politikak abian jartzeko emakumeen lanak zuten garrantzia ere aitortzen hasi zen.

Eztabaia horren oinarria zen egiaztatu zela modernizazioaren teorien ondoriozko hazkundeko eta teknologiaz jabetzeko estrategiek ez zutela izan emakumeengan gizonengan izandako eragin bera. Arlo honetan, Ester Boserup (1970) aitzindaria izan zen, eta erreferentzia-puntu klasikoa, Emakumeak Garapenean (EG) deritzen ikerketetan, hain zuzen ere. Berak eskualde batetik bestera familia-sistemei, lanari nahiz emakumeen estatusari dagokienez dauden alde handiak nabarmendu zituen, bai eta garapen-politikek emakumeak politika horietatik bertatik baztertzeko zuztela ere. Ondorioztatu zuen garapen-estategiek gehienbat gizonezkoiei ekartzen zirela onura.

Emakumeak Garapenean (EG) ikuspegiak planteatzen zuten emakumeen mendekotasunak lotura zuzena zuela lan-merkatu formalek bazterturik egotearekin. Horregatik, garrantzia ematen zion emakumeak lan-merkatuan txertatzeari, arreta emakumeengan jarri behar zuten garapen-programa batzuen bidez. Horri "eraginkortasunaren ikuspegia" deitu zioten. Helburu nagusia zen haien diru-sarrerak hobetzea, eta lehentasuna ahultasun-egoeran zeuden emakumeei laguntzea zen. Ikuspegi horrekin, sexuaren arabera banakaturiko informazioa biltzen hasi ahal izan zen, eta garapen-proiektuek landa-eremuko emakumeengan zuten eraginaren ebaluazio analitikoak bultzatu ziren (Razavi eta Miller, 1995). 1980ko hamarkadan, eraginkortasunean eta efikazian zentratutako ikuspegiak emakumeak garapen-estategietatik baztertuta egotea haien arrakasta oztopatzen zuten funtsezko elementutzat jo zuten (Betts eta Goldey, 2005). Hala ere, ikuspegi horietan guztietan batek ere ez zuen zalantzan jartzen nagusitutako garapen-paradigma. Besterik gabe, emakumeak estrategia horien barruan sartzen saiatzen ziren (Beetham eta Demetriades, 2007).

Hegoalde Globaleko hainbat emakume, 1970eko hamarkadaren bigarren erdialdean eta 1980ko hamarkadan zehar, Emakumeak Garapenean (EG) ikuspegia kritikatzeko hasi ziren, planteatu zuten horien joerak ikuspegi postkolonial batetik aztertzen hasi ziren eta. Mugimendu horiek eragina izan zuten Nazio Batuen Mexikon (1975) eta Kopenhagen (1980) antolatu zituzten Emakumeen Nazioarteko Biltzarretan, eta bereziki Nairoibiko Emakumeen Nazioarteko III. Biltzarrean, 1985ean, Hegoaldeko herrialdeetako ordezkariak argi eta garbi jarri zituzten zalantzan estrategia horiek, eta hautabidezko paradigma bat sustatzeko beharra aldeztu zuten. Paradigma horretan, emakumeen arazoak ez ziren bakarka kontuan hartu beharko, gizartean mendeko eta bazterreko rolak ezartzen dizkien "genero-sistema" baten ondoriozta bezala. Jarrera horretan, bat zetozen Iparraldeko feminista sozialistekin.

Orduz geroztik, Nazio Batuen esparruan, Generoa eta Garapena (GEG) deritzon ikuspegia taxutzen hasi zen. Ikuspegi berri horrek zalantzan jartzen ditu generoaren jendarte-erakuntzak, eta ekonomiaren, gizartearen

nahiz ugalketaren arloko gizonen eta emakumeen arteko harremanetan jartzen du arreta. GEGk garapena politikako nahiz jendarte eta ekonomiako indarren eragina jasaten duen prozesu konplexutzat dauka, eta, prozesu horretan, sexuen arteko harremanak bai sexuaren araberako lan-banaketan bai politikaren, ekonomiaren eta kulturaren arloetan ageri dira. Horregatik, testuinguru askotan, genero-harremanak klase-harremanekin eta arraza-harremanekin gurutzatzen dituzte, eta emakumeen bazterketa-esperientziak aztertzen dira loturak ezarriz gizonen baliabideen, aktiboen eta emakumeen zeharka eragiten dieten politikei buruzko erabakien gainean erabiltzen dituzten botere- eta kontrol-harremanekin.

1. Laukia. Genero kontzeptua

Generoaren kontzeptua funtsezkoa da bai Generoa eta Garapena (GEG) ikuspegian, bai teoria feministan, oro har. Hain da halakoa, non "iraultza semantiko" bat ekarri baitzuen. Kontzeptu hori teoria feministak Giza eta Gizarte Zientzien arloan eginiko ekarpenetako bat da, eta gizonen eta emakumeen sexu-desberdintasunen jendarte-eraikuntzaz aritzeko erabiltzen da. Aldaketarako duen potentziala ukalezina da, genero-harremanak, biologiaren bidez zehaztutzat ulertu beharrean, jendartean eraikitzen dituzten ulertzeak beraiek eraldatzeko aukera inplikatzeko baitu.

Kontzeptuaren eduki erlazionala dela-eta, ezin daiteke "emakumeen" sinonimotzat erabili, ikuspegi horrek gizonak albo batera utziko bailituzke gizarte-eragile gisa; horrez gain, bi kategoriek, gizonen eta emakumeen, elkarri eragiten dieten modua eta bata bestearekiko harremanean eraikitzen diren modua ere utziko lituzke kanpoan. Gainera, feminismoan ahalegin handia egin da analisisetan "emakume" kontzeptuak berez adierazten duen berdintasun monolitikoa saihestearren, eta emakumeen askotarikotasuna nahiz haien arteko aldeak islatzen saiatzen da; gehienbat, gizarte-klasean, etnialan, adinean, erlijioan, jatorrian, sexu-joeraren arteko gurutzaketetan oinarritutako aldeak, hain zuzen ere.

Kultura eta etnia askoko gizarteetan, hala nola, Latinoamerikako herrialde askotan, emakumeen eta feministen mugimendu batzuek mugimendu feminista asko dagoela aldarrikatzen dute, emakumeen artean sortzen diren identitateak bezainbeste: indigenak, afrikarren ondorengoak, hiritarrak, nekazariak, lesbianak, zuriak, eta abar. Nabarmendu egiten dira, halaber, emakume indigenen mugimenduen eta "hiri-feminismoak" deiturikoen arteko elkarrizketak burutzeko zailtasunak. Mugimendu horiek lotura dute feminista beltz batzuek AEBetako feminismo erradikal eta liberalari egindako kritikarekin; izan ere, pentsamendu horrek emakumeen ikuspegi homogenezatzailea aurkezten du, eta ez du onartzen generoa hainbat eratan eraikitzen dela testuinguru historiko batzuetan eta besteetan. Hala, bada, "pentsamendua deskolonizatze" bide bat proposatzen dute, eta deskolonizazio horrek aliantza hibridoak, gizarte-maila askoren artekoak, eta transnazionalak eskatzen ditu.

Botere-harreman horiek nola programa eta politika publikoetan hala garapenerako lankidetzaren egituretan txertaturik daude, eta Generoa eta Garapena (GEG) ikuspegiaren aldekoek egoera hori aldatzea proposatzen dute. Ikuspegi horren helburua emakumeak beren isolatze-tokietatik ateratzea da, eta genero-inekitatea posible egiten duten egiturak ikusgai bihurtzea. Horretarako, emakume-antolakundeek haien ahalduzko prozesuetan betebeharrak duten zeregina aldeztu du. Era berean, emakumeen trebetasunak, hezkuntza nahiz sistema kultural eta sozialen barruko estatusa hobetzearen alde egiten du, eta genero "zeharkakotasunaren" estrategia proposatzen du emakumeak ahalik eta azkarren aldatzeko (Betts eta Goldey, 2005).

Generoa eta Garapena (GEG) ikuspegiak garrantzia emakumeen eta gizonen arteko harremanei ematen dien arren, oso gutxi landu da, oro har, sistema patriarkalak gizonengan duen eragina, maskulinoa femeniinaren gainetik nagusi ezarrazten dien eragin hori, hain zuzen ere. Edonola ere, emakumeen bazterketari buruz nazioarteko organoetan sortu diren agiri gehienek (besteak beste *Emakumeen aurkako Bazterkeria Mota Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena* (CEDAW, 1979); Beijingeko Adierazpena (1995); eta UNDPren 1995eko *Giza Garapenari buruzko Txostena*¹) gizonekin ere lan egin beharra dagoela aipatzen dute, nahiz eta gogoan izan emakumeekiko lanari lehentasuna ematen jarraitzearen funtsezko garrantzia (Zabala, 2010).

1 UNDP (United Nations Development Program), hau da, Nazio Batuetako Garapen Programak urtero argitaratzen du Giza Garapenari buruzko Txostena, eta 1995ean genero-berdintasunari buruzkoa izan zen (*Human Development Report 1995. Gender and Human Development*).

3. Garapenaren eztabaida ortodoxoari egindako ekarpen kritikoak

3.1. Ekarpen postkolonialak

Mendebaldeko kulturak munduko gainerako eskualdeetan izan duen eragin suntsitzailearen gaineko kritika sendo zabaldu zen XX. mendeko 60ko hamarkadaz geroztik. Ezbairik gabe, haren hasierako erakusleetak bat Frantz Fanon izan zen. Eragin handiko egilea izan zen bere garaiko pentsamendu anticoloniala. Kolonizazioak eta arrazakeria-kulturak gizon beltzen osasun psikologikoan zituen ondorio kaltegarriak buruzkoa izan zen haren gogoeta, eta horrek iraultza armatua alde batera eraman zuen, *zuri* eta *beltz* kategorien dikotomia eta gizon beltzen ondoriozko alienazioak gainditzeko irtenbide bakartzat. Hala ere, feminista anticoloniala beltzek modu kritikoan hartu zuten haren lana. Kolonizazioak emakume beltzengan zituen ondorioez egin zuen azalpen sinplista eta ez oso ulerkorra salatu zuten.

Geroago, Antonio Gramsciren (2013) *hegemonia* eta *mendekotasun* terminoak abiapuntutzat hartzen zituen pentsamendu postkolonialeko joera bat gorputzuz joan zen. Hain zuzen ere, terminoak Mendebaldeko kultura hegemonikoari aplikatzen zizkion, kolonia-garaitik iraun duten eta Mendebaldeak Mendebaldekoa ez denaren gainean bere botere hegemonikoari eusteko erabiltzen dituen harremanen osagai nagusi gisa. Horrela, pentsamendu postkolonialak gogoetan erabili zuen Mendebaldearen hegemonia eta Mendebaldekoak ez zirenen mendekotasuna nola eratu ziren, ezaguera topaketa kolonialetik eraikiz. Gogoeta horretan, beste autore esanguratsuen artean, Gayatri Spivaken lana nabarmendu zen 1980ko hamarkadaz geroztik, mendeko pertsonak bizi dituzten arazoez eta entzun diezaieten lortzeko duten gaitasunaz egin baitzuen gogoeta, hain zuzen ere. Azken batean, harreman hegemoniko horiek gainditzeko, subjektuak eta identitateak eraiki, negoziatu eta berrerratzeko moduz egin zuen gogoeta (Spivak, 1988).

Ikuspegi postkolonialak ekonomista feministak garapenaren, aurrerakuntzaren eta ahalduzaren kontzeptu eta esanahiak berriz ere aztertzerako eraman ditu, besteak beste. Egile batzuek eztabaidan jarri dute, proposamen desarrollisten azpian ez ezik, gaitasunen ikuspegiaren eta Generoaren eta Garapenaren agendaren (Charusheela, 2001) azpian ere dagoen ikusmolde modernista.

Pentsamendu postkolonialaren funtsezko ideia batzuk berrikusteko azalpen labur honetan, ezin utz dezakegu aipatu gabe Sousa Santosek Mendebaldeko munduko gainerakoaz izan duen ikuskeraz eginiko ekarpena. Ikuskera horrek, jakina, eragina izan du Mendebaldearen *garapen*-proposamenetan eta, batez ere, haren praktiketan, Hegoaldeko herrialdeei buruzko ikuskeran oraindik indarrean jarraitzen duten estereotipo batzuk islatzen baititu, haren begirada batzuetan paternalista dela, beste batzuetan axolagabea dela, baina askotan herrialde horietako barne-prozesuetan esku-sartze handiak eginda.

Kolonaurreko kulturekin topo egin ondoren, batez ere Ameriketako Mendebaldeak basatiaz eraikitzen duen ikuskerak gutxiagotasuna du abiapuntutzat. Horregatik, kolektibo horiek ez dira "mehatxu zibilizatzaile" bat, baizik eta irrazionaltasunaren mehatxua soilik. Hartara, "haien balioa haien erabilgarritasunarena da. Haren (basatiaren) aurrez aurre jartzeak merezi du baliabide edo baliabide bat eskuratzeko bide den heinean bakarrik. Helburuen baldintzagabetasunak –metal preziatuak metatzea, fedea zabaltzea– bitartekoan erabateko pragmatismoa justifikatzen du: esklabotasuna, genozidioa, jabetzea, konbertsioa, asimilazioa". Indiar herrien esplotazioa eta suntsiketa justifikatzen duen ikuskera Mendebaldeko amerindiar eta afrikar herriez duen jarreraren azpian datza, eta hura da nagusi "Hirugarren Munduan dauden Mendebaldeko eragileen hizketaldi pribatuetan, enbaxadoreak izan, Nazio Batuetako, Munduko Bankuko edo Nazioarteko Diru Funtseko funtzionarioak izan, zein enpresariak, eta abar izan. Beltzen eta indiarren gaineko diskurtso pribatu horrek bultzatzen ditu ezkutuan garapen-proiektuak; gero, jendaurrean edertu egiten dira, elkartasunari eta giza eskubideei buruzko adierazpenekin" (Sousa Santos, 2005). Gogoeta horri gehituko diogu ikuskera hori zeharo androzentrikoa dela, hau da, balio patriarkaletan oinarritua. Halaber, izugarritzko eragina izan du Estatu modernoak munduan zehar eratzekoan, horrela dio Silvia Rivera Cusicanquik Boliviako kasua aztertzen duenean (Rivera, 2010).

3.2. Ekarpen ekofeministak

Hamarkada batzuetatik hona planetak bizi duen krisi ekologikoa² dela-eta, gero eta hurbilago daude proposamen feministak eta ekologistak. Analisi ekonomikoaren erdigunean bizitzaren iraunkortasuna eta emakumeen eta gizonen arteko harremanak jartzen dituen planteamendu feminista puntu askotan dator bat planteamendu ekologistaren planetako bizitzaren aldeko apustuarekin, planetako parte izateaz gainera haren gaur egungo jitoan eragin nabarmena duen espeziea garen heinean. Gure ustez, balio handiko gogoetak egin ditu ekofeminismoak garapenaren inguruko analisi hauetan, eta gogoeta horietako batzuk jarraian laburbilduko ditugu.

Ekofeminismoa XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdera sortu zen, sistema ekonomiko nagusiari kritika egiten zion gizarte mugimendu gisa, 60ko hamarkadako feminismoaren oldearen eta garai hartako mugimendu ekologistaren haritik. Mary Melorren hitzetan (2005), ekofeminismoa "mundu naturalaren ustiapenaren eta degradazioaren eta emakumeen mendekotasun eta zapalkuntzaren arteko lotura bilatzen duen mugimendua da". Hala, mugimendu ekologistaren eta feministaren hainbat elementu bildu ditu, eta erronka jo die batari nahiz besteari. Vandana Shivaren arabera, ekofeminismoa filosofia eta praktika feminista bat da, zeinaren arabera sistema "eratu zen, erutzen den eta irauten duen emakumeak azpiratuz, herri 'aterritarrak' eta haien lurak nahiz natura kolonizatuz" (Shiva, 1995). Beraz txanpon beraren bi aurpegitzat ditu emakumeen mendekotasuna eta naturaren suntsipena: bizitza etekin ekonomikoak lortzeko lehentasunaren mende jartzearen bi aurpegi, alegia.

Ekofeministek osotasun interkonektatu eta interdependente modura ikusten dute mundu naturala, eta genero berdintasun eza txertatzen dute krisi ekologikoei buruzko beren analisietan, gizonak eta emakumeak mundu naturalarekiko erlazio bera ez dutela kontuan hartuta. Inpaktu ekologikoei askotariko moduetan eragiten diete gorputzei, eta, emakumeak ugalketarako gaitasuna dutela kontuan hartuta, haiengan ondorio bereziak ditu jarduera kapitalistak, besteak beste kutsadurak. Ildo horretatik, kontzienteagoak dira (edo izan daitezke) ekologiarren gorabeherak giza gorputzetan eta, beraz, gure bizi-kalitatean dituzten ondorioez.

Lehen hamarkadetako gogoeta ekofeministetan, jarrera batzuk zalantzan jarri izan dira, unibertsalismo esentzialistarako joera zutelako, egile batzuek esaten baitzuten harreman berezi eta ia baztertzaila zegoela emakumeen eta mundu naturalaren artean, bizitza ematen dutenak emakumeak diren heinean. Emakumeak nahiz natura esentzializatzearen eta naturalizatzearen gaineko arbuioa eta beldurra ekarri du horrek. Baina erresistentzia horiek eragina izan dute feminismo erradikal/kultural eta espiritualtasun feministakoan nahiz feminismo materialistan edo sozialistan oinarrituriko ekofeminismoan.

Gorabeherak gorabehera, ekofeministek bat egiten dute sistema kapitalistaren baitan berdintasuna emakumeentzako hazkunde ekonomikoaren eta "garapenaren" bidez aldarrikatzen duen feminismoaren kritikan, ezinezkoa baita halako berdintasunik lortzea ekologiarren ikuspuntutik (Mies eta Shiva 2016). Era berean, ekofeministek diote gizadia osagai duen mundu naturalak bere dinamika propioa duela, giza "eraikuntzaz" edo kontrolaz harago.

Sistema ekonomiko kapitalistari egiten dizkieten kritiketan, azpimarratzekoak dira produktu eta hondakin industrial toxikoei osasunean eta bizitzan dituzten ondorioei buruzkoak (nekazaritzako pestizida kimikoak, hondakin nuklearrak, industria militarra...); eta kritika horiek Iparraldeko mugimendu ekofeministaren borrokaren parte adierazgarria izan dira. Hegoaldean, aldarrikapenetan tarte handiagoa eman diete ur garbiaren eskuragarritasunari, jaki osungarrien eskuragarritasunari, zuhaitz eta basoei eta bestelako ondasun komun batzuei, (hauen pribatizazioak eta, batzuetan, suntsipenak bizkortu egiten baititu komunitate osoen pobrezia eta gaixotasuna).

Oro har, Hegoaldeko ekofeministak nabarmendu dira Iparraldetik esportatutako garapen gaiztoa zalantzan jartzen, milioika emakumeren egunerokotasunean izan dituen zuzeneko ondorioetan oinarrituta. Shivaren (1995) arabera, esaterako, honako puntu hau du oinarri ekofeminismoak: "Hegoaldeko landako emakume pobreentzat, eguneroko bizitzaren errealitatean daude mundu naturalarekiko loturak: borroka oro da borroka

2 Gainera krisi hori bizkor handitzen ari da, besteak beste nazioarteko erakundeek eta munduko gobernu askok ez dutelako neurririk hartzen ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak aldatzeko.

ekologikoa" haiek direlako, ingurumena bezalaxe, prozesu desarrollisten kostua beren bizkar daramatenak. Era berean, arazo ekologikoak larritzen aritzearekin kezkatuta dauden emakumeek zalantzan jartzen eta kontuan hartzen dituzte prozesu horien, arrazakeriaren eta emakumeen ordezkariak ezaren arteko loturak.

Ekofeminismoaren baitako ikuspegi askotarikoak bat datoz emakumeen eta naturaren artean dauden loturei buruz, eta halaber diote gizakiak mundu ekologikoaren kide garela, haren parte garenez. Nolanahi ere, emakumeek eta gizonak garatu ditugun gizarte harremanek eragina izan dute planetako gainerako izakiekin dugun erlazioan. Eta, hori dela eta, testuinguru geografiko bakoitzerako gizarte eta ekonomia errealitateen analisiak eskatzen dituzte. Tokiko analisi horiek kontuan hartuko dituzte talde bakoitzaren baitako emakumeen eta gizonen subjektibotasunen hainbat alderdiren arteko uztarketa eta horien baitako botere harremanak. Elementu horiek guztiak oso adierazgarriak baitira jakiteko, ez soilik nola kokatzen diren ingurumenean, baizik eta zer aukera dauden haien ahotsak eta eskariak aintzat hartzeko eta gaur egun ditugun arazo ekologiko larriak aldatzeko.

Garapenaren inguruko analisi eta proposamenek arreta berezia jarri behar diete bere ondasun eta espazio komunalak, baliabideak, bizibideak, askatasunak, duintasuna, identitatea eta bakea aldarrikatzen dituzten emakumeen eta gizonen jarduera askotariko eta ugariari. Jarduera horiek guztiek ezin hobeto islatzen dituzte planetan bizirik dauden kulturak, eta gako adierazgarriak ematen dizkigute ulertzeko nola antolatu nahi dituzten beren bizitzak alderdi politiko, ekonomiko eta kulturaletik (Shiva, 2006).

Laburbilduta, krisi ekologikoaren eta krisi sozialen gordintasunak feminismoaren eta ekologismoaren arteko elkarrizketa ahalbidetu du. Besteak beste, azpimarratu du emakume pobretuenek duten gehiegizko eginkizunen eta zaintzen zama ez ezik, haiek ari baitira krisi ekologikoen ondorioak modurik latzenez jasaten. Komunikazio horren emaitza gisa, gogoeta ekofeministak ondorioztatzen du emakume horiek gaitasun handia dutela haien eremuak eta gizartea eraldatzeko, baina horretarako ezinbestekoa dela haien gaitasunen jabeak bultzatzea. Ikaskuntza horiek bereziki adierazgarriak izan daitezke garapenaren hausnarketan sakontzeko, munduan emakume asko ahotsa altxatzen ari baitira askotariko moldeak hartzen dituen desarrollismoak bultzatuta (neo-erazketa, basoak, lurra, ura... pribatizatzea) bizilekua eta bizimodua suntsitzen ari diren prozesu txikitzaileen kontra. Testuinguru horretan, ekofeminismoak erakutsi digu "garapena" terminoa tentu handiz erabili behar dela, askotan kontzeptu hori identifikatu ohi baita garapen gaiztoarekin. Eta jakin badakigu desarrollismo txikitzailearekin mundu naturala suntsitzen duela eta gizon-emakumeak esplotatzen dituela.

Hau guztia azpimarratu ostean, argi dago ekofeminismoak hazkuntzan oinarritutako paradigmaren aldaketa aldarrikatzen duela. Gaurko paradigma nagusiak gizartea ekonomiara mugatzen du, ekonomia merkatuarekin identifikatzen du eta paradigma hau hazkuntzaren izenean hedatu eta nagusitu da (Herrero, 2014; Mies eta Shiva, 2016).

3.3. Ekonomia Feministaren ekarpenak instituzioen inguruan

Diskriminazio eta zapalkuntza anizkoitza egiturazko aldagaiak dira gure sistema sozioekonomikoan, maila txikitatik handienetara, nahiz eta sarritan azterketa konbentzionaletan aipatu ez. Genero-harremanen kasuan, gure prozesu sozial guztietan islatzen dira. Genero-harremanak lehen mailako egiturazko aldagaia da jendartearen egiturak aztertzerako orduan, gizarteko prozesu guztiei eragiten dielako, maila guztietako dinamiketan eragina izanda, nola mikro-mailan, hala meso-mailan eta makro-mailan (Larrañaga eta Jubeto, 2011; Jubeto, 2015).

Etxeetako kutxa beltzak berririkiz

Mikro-mailan, banakako, etxeetako eta enpresetako bertako prozesuei eragiten die generoak. Etxeetatik hasita, feminismoak landu ditu familiaren barneko rolen banaketan nagusitzen diren arauak, eta eztabaida publikora ateratzen ahalegindu da. Etxe barruan egiten diren lan ezberdinak eta sexuen artean ematen den lan horien banaketak informazio garrantzitsua eskaintzen dute lanaren kontzeptuan sakontzeko. Horrela, errealitatean lana eta enplegua ezin dira sinonimotzat hartu, lanaren kontzeptua enpleguarena baino askoz zabalagoa baita. Hots, lanaren birkontzeptualizazio horrek bultzatuta, etxeetako "kutxa beltza" berririkiz da, etxeetan egiten diren jarduera produktibo eta afektiboan gaineko askotariko analisisien bidez. Jarduera eta

zeregin horiek funtsezko oinarriak dira gure biziraupenerako eta bizi-kalitaterako, gure bizitzaren atal oso garrantzitsua garatzen baita gure etxeetan. Dena den, bizikidetzarako oinarrizko eremua izanda ere, aldi berean etxea botere gunea da, eta, horrezkero, gatazka eremua ere bada sarritan, lankidetzeta eta gatazka gunea aldi berean, hain zuzen.

Lankidetzeta gauzatzen da familiaren ongizatean laguntzen denean eta asko dira etxearen oparotasunean laguntzen duten jarduerak (diru- sarrerak, laboreak, etxeko lana...). Hala ere, gatazka nabarmenago ikusten da denboraren banaketan, aktiboen eskuragarritasun eta kontrolean, jardueretan eta horien gaineko erabakietan, eta, hala, azken erabakiek etxeko kideen negoziazio ahalmena islatzen dute. Horrekin batera, bortizkeria ere etxe askotako eguneroko ogia da, nahiz eta askotan ezkutaturik geratu.

Aitzitik, ohiko ekonomia-analisiek familia gune baketsu eta gatazkarik gabekotzat aurkezten dute. Ezagunen artean, Familiaren ekonomia berria (dagoeneko ez hain berria) dugu; Gary S. Becker Nobel saridunak garatu zuen, eta Ekonomia Feministak asko kritikatu zuen (Pujol, 1991; Carrasco, 1991). "Beckertar familian" gehien kritikatu diren elementuetako bat baliagarritasun-funtzioa edo familia-ongizateko funtzioa izan da. Banakako funtzioak familia- kide guztien interesei zegokien funtzio bakar bat eratzeko batu ezin izan zituenez, Beckerrek altruismoaren teorema proposatu zuen; haren arabera, "etxekoburu" altruistak bere baliagarritasun-funtzioan gainerako kideen ongizate-funtzioak hartzen ditu. Planteamendu horrek, familia instituzio harmoniatsutzat eta interes-gatazkarik gabekotzat hartzeaz gain, lagun bakarrak lehentasun kolektiboen edo familia-unitatearen lehentasunen ordena erabaki dezan onartuko luke; hartara, hari "diktadore onbera" deitu diote. Bestela esanda, diktadore onberaren irudia familia-antolakuntzaren era patriarkal nagusiaren irudikapena eta onarpena baino ez litzateke.

Diktadore onbera hori eta familiaren jokabide hori kontraesanean daude ekonomia neoklasikoaren oinarrizko printzipio batekin, indibidualismo metodologikoaren printzipioarekin, alegia. Diktadore onberak ez du betetzen "homo economicus" delakoaren (merkatuko banakoen irudikapen gorena) funtsezko ezaugarri bat, hots, norberekoikia. Beckertar familian, norberekoikia kide batzuen kasuan baino ez da ikusten, beste batzuk eskuzabaltzat hartzen dira eta. Diktadore onbera etxean baino ez litzateke izango horrelakoa, eta, etxetik kanpo, eraldatze-kasu bitxi baten bidez –Dr. Jekyll eta Mr. Hyde gogorarazteko moduan– onberatasuna utzi, eta merkatuko gune publikoan bere interesaren alde bakar-bakarrak jokatu luke. Hala, bada, berriz nabarmenduko dugu, "familia altruista" delakoak, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak legitimatzeko ez ezik, kasu hori merkatuan erabiltzea ezinezkoa dela justifikatzeko ere balio duela. Horrela, kontzeptuzko dualismoa indartzen da merkatuaren (bertan, nork bere interesen alde jokatzeko dute guztiek) eta familiaren (bertan, harmonia eta arau altruistak dira nagusi) artean.

Etxean, beraz, negoziazio ahalmena ere gauzatzen da, eta sarritan botere horrek ahalmen materialarekin harreman estua du, hau da, nork kontrolatzen eta ekartzen dituen baliabideak edota soldata nagusiak eragin zuzena duen negoziazio ahalmen horretan. Eta hor ikusten da zer-nolako harreman estua duen etxean egindako lanak, merkatuan egiten diren lan aukerekin, denbora zurruna baita. Halaber, denboraren erabilera aztertzen duten ikerketa nagusiek adierazten dute emakumeen eta gizonen arteko aldea, etxeko lanei eta zaintzei begira, eta zelan horrek harreman estua duen merkatuan igarotako orduekin, bereziki seme-alabak izan ondoren. Eta denboraren banaketa horretan badago hirugarren instituzio garrantzitsua bat, hau da, administrazio publikoak. Komunitate batean dauden zerbitzu publikoen garapen mailak ere lotura estua baitu aurreko eremuekin.

Giza zaintzaren zikloak etxeetan eta emakumeen lan ez-ordainduan oinarritu badira ere, ez dugu ahaztu behar zaintza ez dela etxean soilik egiten, etxetik kanpo ere gauzatzen dela, eta zaintza horietan esku hartzen dutela, jendarte jakin baten egituren arabera, sare komunitarioak, sektore publikoak zein enpresek nahiz ekonomia sozial eta solidarioko erakundeek. Are gehiago, zaintza egitura askotarikoak izan daitezke eta esparru horien guztien arteko lotura estua egon daitezke. Hortaz, funtsezkoa da tokian tokiko egitura horiek aztertzea.

Ezin dugu amaitu atal hau aipatu barik gure gizartean ematen ari den joera nabarmen bat zaintzen esparruan. Zaintza lanetarako kalitatezko zerbitzu publikoak existitzen ez direnez eta oraindik gai pribatutzat hartzen denez, pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, lehen landa-eremuetako emakume txiroak kontratatzen ziren moduan, gaur egun emakume etorkinak kontratatzeke joera zabaldu egin da. Horren ondorioz, "zaintza-kate globalak" deritzen fenomenoak hedatu da, beste globalizazio molde bat, alegia, zaintzen globalizazioa (Pérez Orozco et al. 2008). Kate horietan, kate-begiak emakumeak dira, herrialde

txirotuetakoak, batik bat, Iparraldeko etxeetan (Hegoaldeko herrialdeetan ere badira halakoak), askotan zaintza eta arreta lanak egitera behartuak, haien herrietan lorturiko prestakuntza maila sarritan ez baita onartzen, eta oztopo asko gainditu behar dituzte haien ikasketak baliozkotzeko. Hortaz, beren seme-alabak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar dituzte, askotan, familiako beste emakume batzuen zaintzapean edo enplegu bila lekualdatu eta modu prekarioan kontratatutako emakumeen zaintzapean. Zaintza-kate global horiek sortzeko, berebiziko eragina izan dute bi krisik: alde batetik, herrialde txirotuetako jendarte erreproduktzioaren krisiak emakume eta gizon asko behartzen ditu emigratzera, baldintza material hobeetan bizi ahal izateko aukera emango dieten diru sarreraren bila; eta, bestetik, Iparraldeko herrialdeetako zaintzen krisiak deritzenak.

Lan merkatua: zapalkuntza eremua zein autonomia ekonomikorako bitartekoa

Meso-mailan, beste funtsezko instituzio bat lan merkatua da. Herri txirotuetako kasuan, garapen estrategietan emakumeak pobreziatik ateratzeko garrantzi handia eman zaio enpleguari, aurreko atalean aipatu dugun moduan, baina praktikan, sarri askotan enplegu informal edo ezkutua egitera behartu dituzte.

Jendarte guztietan, generoen arteko harremanak lan merkatuaren funtzionamendua baldintzatzen du; izan ere, emakumeen eta gizonezkoen arteko zereginen banaketaren ondorioz, enplegu aukerak eta baldintzak ez dira berdinak, ezta ekitatez banatzen ere. Sexuaren araberako lan-banaketak gizonen eta emakumeen denboraren erabilerarako gizartean ezarritako eskubide- eta betebeharrak sare konplexu bat dakar berekin, eta ongizatearen estatuaren funtzionamendua eta prestazioak, eta abar baldintzatzen ditu. Tokiko eta eskualdeko administrazioen politikek ere, sarri, sexuaren araberako lan-banaketa indartzen duten joera horiek berak jasotzen dituzte.

Ikerketa askok landu dute lan merkatuan emakumeek pairatzen dituzten askotariko disparekotasunak eta zapalkuntza motak (Larrañaga et al. 2012; Larrañaga, 2014, besteak beste). Horregatik, laburpen honetan bakarrik azpimarratuko dugu eremu honetan ere kontraesan handiz murgiltzen garela.

Alde batetik, pertsona gehienok gure lan indarra besterik ez dugunez, gure jendarteetan enplegua izateak berebiziko garrantzia du gizon-emakume gehienentzat, lehenik eta behin, bizitza aurrera eramateko behar ditugun baliabide ekonomikoen iturri delako. Hortaz, emakumeen kasuan ere enplegua funtsezkoa da autonomia ekonomikoari begira; enplegua baita, gehienetan, beharrezkoak zaizkigun ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko behar ditugun diru-sarrerak lortzeko iturri nagusia (eta askotan bakarra). Emakumeak, ordea, ez dira berdintasunezko baldintzetan sartu lan merkatura, eta, hain zuzen ere, enplegu arloko ezberdintasuna da emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia.

Feminismotik ere badaude autoreak, adibidez Silvia Federici, ordaindutako lanaren izaera askatzailea zalantzan jartzen dutenak. Egile honek soldatapeko lanak emakumea askatuko zuela pentsatzea ilusio hutsa izan zela azpimarratzen du; izan ere, soldatapeko lanak ez du inor askatu. Hala ere, enplegua autonomia ekonomikorako oinarritzkoa dela onartzen du, eta panazea ez izan arren, eta askapenerako estrategiarik onena ez bada ere, aipaturiko askapenerako estrategia bat izan daitekeela (Federici, 2013).

Gainera gurearen moduko jendarteetan enplegua diru-sarreraren iturri bat baino askoz ere gehiago da, eta errenta gabeziatik askoz ere urrunago doa enplegurik eza: identitate galera, frustrazioa, depresioa, etab. Hala ere, emakumeek eta gizonek enpleguarekiko izandako harremana ezberdina izan denez, lehen aipatu dugun moduan, bereziki emakumeek etxeko zereginen ardura izan baitute, enpleguaren galerak ondorio ezberdinak izan ohi ditu emakumeengan, bera sarritan ez zelako lanik gabe geratzen, zeregin anizkoitzak zituelako. Dena den, emakumeen eta enpleguaren arteko harremanak sakontzen ari diren heinean, eta familia ereduak aldatzen ari direnez, enpleguaren galerak edota enplegu prekarioak eragin handia du emakumeen bizi baldintzetan.

Politika publikoen beharra: gabeziak eta ikuspegi feminista sartzeko aukerak

Makro-mailan, alde batetik, agregatu makroekonomiko handiak ekonomiari buruzko oso ikusmolde estu eta maskulino bati dagozkio. Adibidez, Barne Produktu Gordinak (BPG) ekoizpena edo errenta zenbatzerakoan

bakarrik merkatutik igarotzen diren salerosketak kontuan hartzen ditu. Beste alde batetik, makro-mailako politika ekonomiko asko -hala nola, zerga politikak, gizarte politikak, industria politikak, nekazaritza politikak, merkataritza politikak, mugikortasun politikak, etab.- ez dira neutralak generoari dagokionez. Eta ez dira neutralak, jendearen bizitza baldintzatzea eragiten dutelako, eta emakumeen eta gizonen baldintzak eta posizioak berdina ez direnez, politikek ere eragin desberdina izan dezakete. Hortaz, emakumeen eta gizonen errealitateen arteko ezberdintasunak kolokan jarri du politika publikoen neutraltasuna, politika horiek emakumeen eta gizonen arteko harremanetan eragin bai zuzena bai zeharkakoa duen heinean. Baina, makro-mailan harturiko erabakiek mikro-mailan eragina dutelarik, mikro-mailan harturikoek ere azkenean eragina izan dezakete makro-mailan.

Prozesu honetan, emakumeen eta eskualdeen artean alde handiak dauden arren, emakumeek mendez mende egin izan dituzten jardueren desbalorizazio sozialak eragin argia dauka politika publikoetan. Hori horrela, jendartearen egituraketan oinarritzekoak diren etxeko lanak eta zaintza lanak baztertu egin dira, ez-ekonomikotzat hartu direlarik. Ondorioz, azterketa ekonomikotik ere baztertu izan dira. Aldi berean, jarduera ekonomikoaren eduki eta mugen pertzepzioak nabarmen baldintzatzen ditu politika publikoak; izan ere, esfera horretatik sistematikoki baztertu diren jarduerak ez dira kontuan hartu esku-hartze publikoa planifikatzean, kasu batzuetan komunitatearen bizitza ekonomikoaren funtsezko euskarriak diren arren.

Hala izanik eta laburbilduz, feminismoak aldarrikatzen du genero berdintasunerako onuragarriak izango diren politikak sustatu behar direla, ongizatearen funtsezko elementua baita berdintasuna, eta ez bigarren mailako emaitza. Eta horretarako antolatutako den tresnarik nagusienetako bat genero ikuspegia xertatuko duten aurrekontuak bermatzea izan da. Martxan jarritako esperientzia praktikotik, Genero Aurrekontuen analisen helburu nagusiak bi izan dira: alde batetik, administrazioak aurrera eramandako politikek emakumeengan zein gizonengan duten eragina ezagutu eta ebaluatzea, eta bestetik, gobernuen sail eta agentziek planifikaturiko egitasmoen baliabideak, hutsuneak ikusten diren esparruetan, emakume eta nesken interesen alde erabili daitezkeen ahaleginak egitea (Jubeto, 2007). Laburbilduz, azken hamarkadetan azterketa hauek egin ondoren frogatutzat geratu da politika publikoa ez dela generoarekiko neutroa, eta funtsezkoa dela politika publikoak gizonengan eta emakumeengan dituen ondorioak aztertzea (kolektibo bakoitzaren baitan ezberdintasunak ere jasoz), ondoren aldaketak sartzeko asmoz.

4. Giza garapenaren ikuspegia

Garapenaren edukari dagokionez, 1980eko hamarkadaz geroztik, ikusmolde berri bat eratu da. Haren arabera, pertsonak izan behar dute garapenaren helburua, eta ez bitartekoa soilik, eta garapen hori pertsonen aukerak zabaltzen dituen prozesutzat ulertzen du, baliotsua irizten dioten bizitza bat aurrera eramateko aukerak, hain zuzen ere. Kontzeptu horri "giza garapena" deitu zaio, eta luze eta zabal barreiatu da azken urteetan, Mahbub ul Haq, Amartya Sen eta Martha Nussbaum adituek, batik batik, azaldu zutenetik.

Aukera gehiago egon daitezkeen, funtsezkoa giza gaitasunak³ garatzea da, hau da, norberak bizitza berrantolatzeke gaitasuna sustatzea, norbere ikuspuntutik gai sakonenak eta garrantzitsuenak zeintzuk diren kontuan hartuta (Nussbaum, 1999). Oro har, labor adierazirik, ustea da giza garapenerako gaitasun behinenak hauek direla: bizitza luze eta osasuntsua izatea; kalitateko hezkuntza jaso ahal izatea; bizi-maila duina lortzeko behar diren baliabideak eskuratu ahal izatea; eta komunitateko bizitzan parte hartu ahal izatea. Gaitasun horiek gabe, eskura dauden aukerak nabarmen mugatzen dira, eta bizitzan bide asko itxita geratzen dira. Baina giza garapenak alde handiz gaitatzen du hori, eta bizi-kalitatean funtsezkoak diren beste aukera-arlo batzuetan giza eskubideen bermea, giza segurtasuna, eta biziaren eta planetaren zaintza sartzan dira, besteak beste. Horiek guztiak dira beharrezkoak pertsonak sortzaile eta emankor izan daitezkeen, beren burua errespetatu dezaten, barne-potentziala gara dezaten, eta komunitate bateko kide senti daitezkeen. Hitz gutxitan, giza garapena jendearen, jendearentzako eta jendeak berak gauzatutako garapena da.

Filosofian, ekonomian eta politikan, historian zehar hainbat ahotsek nabarmendu dute bizitzaren helburu edo xedea gizakien ongizatea dela. Nahiz eta garapena ikusteko modu hori maiz ahanzten den, ondasunak eta finantza-aberastasunak piltatzeko berehalako nahia dela-eta, ez da berria. Aristotelesek Antzinako Grezian

3 Giza Garapenaren Teoria, gaitasunek duten garrantzia dela-eta, Gaitasunen Ikuspegia bezala ere ezagutzen da.

esan zuenez: "aberastasuna ez da, ez horixe, bila gabiltzan ondasuna, beste helbururen bat lortzeko tresna baino ez baita hura" (Aristoteles, [K. a. 330] 1997).

Sen-ek gaitasunaren kontzeptua sustatzen du mundu mailako herrialdeen arteko pertsonen bizi-kalitatea neurtu eta alderatzeko tresna gisa, Barne Produktu Gordina per kapita edota baliagarritasun kontzeptuak gainditzeko asmoz. Gaitasunak, azken finean, galdera batzuei erantzunak bilatzeko tresna dira, eta galderak hauek dira: zeintzuk dira pertsona batek izan dituen aukerak bere bizitzako proiektua aurrera eramateko? Zer da pertsona bat egiteko gai?. Beste era batean esanda, garapenak, Sen-en iritziz, "funtsezko askatasunak" dira, hots, aukeratzeko eta jarduteko funtsezkoak diren aukera multzoa (normalean haien artean loturik daudenak). (Nussbaum 2012).

Giza garapenak ez du zerikusia paperean jasotako askatasunekin bakarrik, eta, hortaz, gaitasunei askatasun "errealak" esaten zaie. Prozesuko askatasunek ahalduntzearekin eta hainbat mailatako praktika demokratikoekin dute lotura, pertsonak ez direlako garapenaren onuradunak bakarrik. Konstituzio batek iritziz-askatasunerako eskubidea bermatzen bada, baina praktikan askatasun hori hautsi egiten bada, orduan, ez da existitzen. Askatasun politikoek, demokraziak eta askatasun zibilek bezala, berezko balioa dute, eta bederen bi alderdi gehigarri dagokienez dira garrantzitsuak. Lehenik, gobernu demokratikoak, oro har, egoera hobean egoten dira giza garapeneko helburuak bultzatzeko; neurri batean hori hala da, hasiera batean, erantzuleagoak eta gardenagoak direlako. Kontuak ematea beharrezkoa da demokrazia giza garapen bihurtzeko, hauteskondeek bakarrik ez baitute nahikoa gardentasun ematen. Bigarrenik, askatasun politikoek jendeari politiken helburu eta lehentasunei buruzko eztabaidetan era aktiboan parte hartzea ahalbidetzen diote. Baina, erantzukizun demokratikoak giza garapenean eragina baduen arren, ez du hura bermatzen.

Politiketan beti daude hautabideak, baina litekeena da batzuk hobeak izatea pobrezia desagerrarazteko, giza eskubideetarako eta iraunkortasunerako, eta beste batzuek, aldiz, onura eliteei baino ez ekartzea, elkartzeko askatasuna murriztea, eta baliabide naturalak agortzea. Justizia-printzipioek esplizituak izan behar dute, eta giza garapenean ekitatearen inguruko kezak arreta esplizituki desberdintasunean biltzea dakar zuzenean.

Giza garapenak pertsonak beren garapenaren arkitektotzat dauzka, bai familia eta komunitate barruan, bai modu kolektiboan, eztabaida publikoetan, ekintza komunetan eta praktika demokratikoan. Ahalduntutako jendea aldaketak sortzeko gai da, dela familian, dela lan merkatuan, dela komunitatean, dela eskala handiagoan. Pertsonak beren etorkizuna eratzeko gaitasuna –Amartya Senek "agentzia" deiturikoa– izateaz arduratzea funtsezkoa da gaitasunen ikuspegiari, eta estuki askatasunari lotzen zaio. Ahalduntzeak hala agentzia nola laguntzazko azpiegitura instituzionalak behar ditu, zeren jendeak etxean eta lanean, politikan, komunitatean eta gizartearen erabili baitezake bere ahala edo boterea. Ahalduntzeak badu lotura pertsonen banakoak diren aldetik, bai eta hainbat arlotan taldeko eragileak diren aldetik ere, tokiko kooperatibetan, sindikatuetan nahiz aldaketak bultzatzen dituzten herrialde-mailako mugimendu politikoetan.

Amartya Senen "agentzia" kontzeptu horrek oso lotura estua du Hegoaldeko mugimendu feministek bultzaturiko ahalduntze-estrategiarekin. Horien artean, DAWN plataformak (Development Alternatives with Women for a New Era) egin zuen planteamendua nabarmentzen da. Ahalduntzearen estrategiak mendekotasun-egiturak eraldatu nahi ditu, legeetan, jabetza-eskubideetan eta nagusitasun maskulinoari indarra ematen eta iraunarazten dioten instituzioetan erabateko aldaketak eginez. Ikuspegi horretatik, ahalduntzea boterea norbereganzeko prozesua da, boterea beren bizitzan gainean eragin txikia dutenek izateko eta beren burua adierazteko ahalmena edukitzea dela ulertuta.

Gaitasunen ikuspegiaren arreta, hortaz, pertsonaren aukeretan, pertsona guztien eta bakoitzaren aukeretan kokaturik dago. Pertsona bakoitza, berez, baliotsua da eta errespetua merezi du, eta helburutzat ikusi beharra dago, beste baten helburuen agentetzat edo sostengutzat ikusi ordez. Zentzu horretan, ekonomia feministarekin estu lotuta dago eta hori islatzen da emakumeen egoera aztertzean. Giza garapenaren ikuspegia lantzen dutenek eta bereziki Sen-ek eta Nussbaum-ek egindako azterketetan argi geratzen da leku askotan ohikoa dela emakumei buruz ikuskera instrumental bat izatea, alegia, beste batzuen helburuetarako euskarritzat hartzea, eta ez berezko helburutzat. Horrek bultzatu zuen Amartya Sen etxeko kutxa beltza zabaltzera eta beste faktoreen artean, Nussbaum esplizituki hamar "giza gaitasun funtzional nagusi" zeuzkan zerrenda bat aurkeztera. Zerrenda hori oinarritzat har daiteke eztabaidatzeko zeintzuk diren bizitza duin baten atal funtsezkoak eta noraino emakumeek eta gizonek aukera berdinak dituzten esparru bakoitza garatzeko. Ondorengo laukian laburbiltzen dira funtsezko hamar gaitasunak.

2. Laukia. Gaitasun funtzional nagusiak

1. Bizitza. Iraupen normaleko giza bizitza bat bizitzeko gai izatea amaierara arte, goizegi hil gabe edo bizitza bizitzea merezi ez duen zerbait bilakatu baino lehen.
2. Gorputz-osasuna. Osasun ona izateko gai izatea, ugalketa-osasuna barne, ondo elikaturik egotea, eta etxebizitza egokia izatea.
3. Osotasun fisikoa. Toki batetik bestera askatasunez mugitzeko gai izatea eta segurtasunez bizitzea.
4. Zentzumenak, irudimena eta pentsamendua. Zentzumenak erabiltzeko, irudikatzeko, pentsatzeko eta arrazoitzeko gai izatea, eta horiek guztiak benetako giza modu batean egiteko gaitasuna izatea, hots, modu informatu eta landu batean, hezkuntza egoki bati esker.
5. Emozioak. Gu ez garen beste gauza eta pertsona batzuekin lotura afektiboak izateko gai izatea.
6. Arrazoimen praktikoa. Ongiaren kontzeptu bat osatzeko eta bizitzaren plangintzaz gogoeta kritiko bat hasteko gai izatea.
7. Afiliazioa. Beste pertsona batzuekin eta besterentzat ahalegin guztia eginez bizitzeko gai izatea, eta izaki duintzat, besteen balio berbera duten izakitzat, tratatuak izateko gai izatea.
8. Beste espezie batzuk. Animaliekin, landareekin eta naturaren munduarekin interesaturik eta harremanetan bizitzeko gai izatea.
9. Jolasa. Barre egiteko, jolasteko eta aisia-jarduerez gozatzeko gai izatea.
10. Norberaren ingurunearen (politikoa eta materiala) gaineko kontrola. Politika-arloko erabakietan eraginkortasunez parte hartzeko gai izatea, jabetzak edukitzeko gai izatea.

Aurreko zerrendak inplizituki planteatzen du gaitasun bakoitzak merkatuaren apetetatik eta interes politikoetatik babestuta egon behar duela. Horrez gain, proposamen teoriko berri batzuek azpimarratzen dute politika publikoek ez dituztela soilik gaitasunak bermatu behar, gaitasun horiek modu iraunkorrean bermatu behar direla, hau da, "gaitasunen segurtasuna" defendatzen dute (Wolff eta De-Shalit-ek egiten duten moduan, Nussbaum-ek aipatuak, 2012).

Jakina denez, duintasunez bizi ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak elkarren artean oso lotura estua dute. Hala ere, tokian tokiko egoera ikusita, posiblea da momentu jakin batzuetan komenigarria izatea horietako batzuk lehenestea. Ingrid Robeynsek eta Cristina Carrascok, Nussbaum-en oinarritzko gaitasunetatik abiatuta, gaitasunen zerrenda egokitu dute. Geuk ere, egile ezberdinen zerrendetan oinarrituta, gure inguruan dauden desberdintasunak ikusita eta nazioarteko ongizate adierazle garrantzitsuenak aztertuta, hurrengo sei gaitasunen zerrenda lehenestea proposatu dugu. (Larrañaga eta Jubeto, 2011):

1. Zaintza duinak eskuratzeko gaitasuna: zaintzak beharrezkoak dira guztion bizitzan eta erabat funtsezkoak gure bizi-kaliterako. Gai honi, emakumeak kaltetzeke, erantzun sozial, politiko eta kolektibo bat ematea beharrezkoa da sozialki jasangarria izango den eredu bat lortzeko. Zaintza duin batzuetarako sarbidea beste gaitasunekin oso lotuta dago, eta oso garrantzitsua da adibidez emakumeen eta gizonen arteko ekitatea lortzeko.
2. Hezkuntza eskuratzeko gaitasuna: guztion garapen osoarekin erlazonaturiko eskubidea izateaz gain, benetan asko eragiten du emakumezkoen, gizonezkoen, familien eta kolektiboen aukera eta bizi-kalitatean. Hezkuntzak, besteak beste, oso eragin argia du osasun mailaren hobekuntzan, diru-sarreraren igoeran, familia egituren aldaketan (esate baterako ugalkortasunean eta kide ezberdinen jarduera ekonomikoan), balio demokratikoen sustapenean, bizikidetzan eta pertsonen jarduera autonomo eta arduratsuan. Ondorioz, hezkuntzak osagai instrumental argia du beste alorren aurrerapena bermatzeko.
3. Osasuna eskuratzeko gaitasuna, osasun sexuala eta ugalketakoa barne: bigarren hau gai nagusia da emakume guztien bizitzan, baina bereziki gazteenetan. Biztanleriari eta garapenari buruzko El Cairoko Nazioarteko Konferentzian (CIPD), 1994an, eskubide sexual eta erreproduktiboak berezko

helburu garrantzitsuak direla ezarri zen, egonkortasun demografikorako baliabide erabakigarriak izateaz gain.

4. Autonomia ekonomikoa lortzeko gaitasuna: beharrezkoa da ondasun eta zerbitzuak lortzeko eta, beraz, baita pertsonen ongizate materialerako ere. Autonomia ekonomikoa lortzeko ohiko bidea diru-sarrerak eskuratzea da, eta horiek, gehienetan, lan merkatuan parte hartzeari esker gauzatzen dira. Hala ere, autonomia ekonomikoa diru-sarreraren autonomia baino kontzeptu zabalagoa da, zerbitzu publikoak, prestazio sozialak edota kredituak eskuratzeko aukerak ere oso inportanteak direlako.
5. Parte hartze sozial, politiko eta ekonomikoa komunitatean: esparru honetan garrantzitsua da arreta ohikoak ez diren alorretan jartzea, besteak beste, egunerokotasunaren esferan, zeren eta hauek parte hartzearen ikerketetan, maiz, alde batera utziak izan dira, ez baitira espazio politikotzat hartu. Baina honek badu arriskua, hala nola eguneroko espazio horiek emakumeen leku naturaltzat jotzea. Erabaki politiko eta ekonomikoak hartzen diren guneetan emakumeen parte hartzea sustatzeak lehentasuna izan beharko luke. Argi dago, erabakiak hartzeko esparruetan emakumeen eta gizonen arteko tarte kuantitatiboa txikitzea, baldintza beharrezkoa izan arren, ez dela baldintza nahikoa emakumeen interesen alde egiteko. Izan ere, erabaki-guneetan emakumeak sartzeak ez du beren interesen aldeko apustu trinkoa bermatzen.
6. Biolentziarik gabe bizitzeko eskubidea: emakumeen aurkako biolentzia bereizkeriaren eta erlazio desberdinen muturreko adierazpena da. Biolentzia eta horren mehatxua era askotako izan daiteke (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, politikoa, judiziala, soziala...), eta ia espazio guztietan ematen dira: kalean, lantokian, eskolan, jai eta aisia esparruetan, komunitatean eta, jakina, etxean. Kultura ezberdinetan oso barneratuta dago, eta tolerantzia sozialak eta instituzioen konplizitateak arazoa areagotu egiten dute. Emakumeen aurkako biolentziak, bere hedapena, izaera eta jatorriagatik, gainerako gaitasunak kaltetzen ditu, eta, ondorioz, desabantaila garratza bihurtzen dela esan genezake.

Giza garapena: teoriatik praktikara

Nahiz eta azken hamarkadetan arreta neurri handi batean garapenaren edukian jarri den, garapena lortzeko moduari buruzko kezka eta eztabaida ez dira itxi oraindik. Giza garapenaren paradigmatik erretorikan nagusitzea lortu du, baina esku-hartzeak eta politiken diseinuak, ordea, garapen ekonomizistaren mende jarraitzen dute sarritan. Giza garapenaren kontzeptua oso inklusiboa izanik ere, plano teorikotik programak eta politika publikoak abian jartzera pasatzen denean, baina, erredukzionismo progresiboko arazo larri bat agertzen da, eta, azkenean, erredukzionismo horrek garapena eta hazkuntza ekonomikoa parekatzen bukatzen du. Garapen-mailak, lehentasunez, sarreraren banakako eskuraketatzat ulertzen dira, eta iraunkortasuneko bizitzarako baliabideei garrantzia ematea, azken batean, sarrerak sortzeko iturri iraunkorrei dagokie. Badirau merkatuko ekonomia-sistemak giza garapenerako baliabideak ematen dituelako sinesteak. Ikuskera horrek arazoak sortzen ditu, zeren baliabideak emateko eta eskuratzeko kontuan hartzen den modu bakarria merkatuak eskainiriko ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko izaten da.

Horrek esan nahi du garapena pertsonen gaitasun eta askatasunen hedapentzat ulertzetik ongizatearen nozio estu batera pasatzen dela, hezkuntzan, osasunean eta, oroz gainetik, diru-sarrerak edukitzean zentratuz. Gainera, maiz, hezkuntza eta osasuna garapenerako bitartekotzat ikusten dira, hots, hazkunde ekonomikorako bitartekotzat –giza kapitalean egiten den inbertsio bat egiten den heinean–, garapenaren berezko helburutzat hartu ordez. Horrez gain, merkatuko mekanismoei garrantzia ematean, merkatukoak ez diren arloen rola alboratu egiten da (etxea, zaintzak, borondatezko lanak, elkarrekotasuna...), bai eta erakunde publikoek pertsonen eta komunitateen bizi-kalitatean duten rola ere.

Hala ere, garapenaren ikuspegi ekonomizistaren erabat aurka gauden arren, gure iritziz, gaur egungo jendarteak hain merkantilizatuta daudenez, errenta oraindik ere garrantzizko baliabidea da ondasun eta zerbitzu asko eskuratzeko. Horrelako gizarteetan, diru-sarrerak kontrol handiagoa ematen dute elikagaiak, etxebizitza, jantziak eskuratzeko eta bizitzan aukera gehiago izateko behar diren baliabideen gainean. Litekeena da errenta-mailaren hazkundeak enplegu duina lortzeko aukerak gehitzen ari direla esan nahi izatea, nahiz eta orokortzerik ez egon, aldaketa horiek zein bere testuinguruan aztertu behar dira eta. Zenbait kasutan, oso egoera prekarioan dauden enplegu aukerak eskaintzen dira, eta horiek ez dute gutxieneko bizi-mailarik bermatzen, zaugarritasuna baizik. Dena den, emakumei dagokienez, errenta eskuratzeko,

oro har, autonomia handiagoa dakarkie, bai eta botere handiagoa ere gune batzuetan eta besteetan. Dena dela, ez da giza bizitzaren gainerako alderdietatik bereiz azter daitekeen aldagai bat.

Laburbilduz, giza garapena hiru dimentsiotara (sarrerak, hezkuntza eta osasuna) mugatzen bada, garapenerako funtsezkoak diren elementu sozial eta politiko asko ahaztu egiten dira, hala nola, ahalduntzea, ekitatea eta iraunkortasuna. Horiek guztiak pertsonen askatasunaren berezko osagaiak dira, haiek adierazgarritzat jotzeko moduko bizitza bat eramango badute.

5. Garapenaren bilaketak jarraitzen du: ekonomia solidarioaren aldeko proposamenak

Gaur egun, ez dago adostasunik garapen-politiken inguruan, baina joera berriak sortzen ari dira, sortu ere. Pertsona askok finantza-krisia, AEBetako eta beste herrialde aberats batzuetako finantzaketako erraldoien kolapsoa haren sinbolo dela, merkatuaren aldeko liberalizazio erabateko batek dakartzan arriskuen gogoragarri gogortzat interpretatu dute. Oraindik ez dago argi zer ondorio izango dituen krisi honek garapenari buruzko pentsamenduan, baina badirudi nahia dela politika publikoetan rol aktiboagoa izatera egin dezan, gizarte zibilak gehiago parte hartuta eta garapen-helburu ekitatezkoago eta humanitarioagoetarantz bideratuta.

Garapenari buruzko egungo gogoetan badira elkarren kontrako ildo batzuk, ez berriak guztiak, eta elkarren osagarri batzuk. Haien eragina, praktikan, aldatu egiten da herrialde batetik bestera, eta askok badituzte elkarguneak giza garapenaren ikuspegiarekin (ongizatearen ikusmolde multidimentsionala; osasuna, hezkuntza, gizarte-segurantza unibertsala eta antzeko ondasun publikoak sortzeko neurri publikoen beharra; politika publiko gardena eta parte-hartzailea izatea; klima-aldaketari aurre egitea, eta abar). Garapenari buruzko pentsamendu-ildo berriek onartu egiten dute ez dagoela konponbide bakar bat, arau-erreforma jakin batzuen abantailak eta onurak desberdinak direla egoeraren arabera, eta beharrezkoa dela tokiko estrategia egokiak zehaztu eta hartzea.

Nahiz eta garapen-politikei buruzko adostasunik ez dagoen, praktikan proposamen berriak lantzen ari dira, horietariko batzuk antzinako praktikei oso lotuta. Esaterako, Latinoamerikako eskualdean, Bolivian eta Ekuadorren, batik bat, Ongi Bizitzearen paradigma indar handia hartzen ari da (ikusi 3. Laukia).

3. Laukia. Ongi bizitzearen paradigma

Ekuadorren, Montecristin idatzitako 2008ko Konstituzio berrian Ongi Bizitzearen kontzeptua edo *Sumak kawsay* sartu zen. Ongi Bizitzea ezin lor daiteke era sinplista batean "*Mendebaldeko ongizatearekin*", eta herri eta nazio indigenen mundu-ikuskeraren berrartzea proposatzen du. Ongi Bizitzearen paradigmatik garapenari buruzko teoria konbentzionalak zalantzan jartzen ditu, eta bestelako garapen bat kolektiboki eraikitzea aldeztu du, giza eskubideen (politikoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak) eta naturaren eskubideen indarrarekin bultzatuta, ekonomia solidario bat eraikitzeko oinarri gisa. Argitu beharreko zeregina honakoa da: merkaturako harreman kapitalista eta patriarkalak, eta, horien ondorioz, gizarte-klaseen eta genero-harreman hierarkikoen artean sortutako kontraesanak gainditzeko trantsizio-mekanismoak antolatze modua.

Ongi Bizitzeak gauza asko ditu komunean gaitasunen ikuspegiarekin, besteak beste, pertsonak gararazi ez, baizik eta pertsonak beren burua garatu behar dutelako ideia. Hori lortzeko, edozein pertsonak hautatzeko aukera berberak izan behar ditu ezinbestean, eta Estatuari dagokio merkaturako gabeziak zuzentzea eta garapena sustatzea, beharrezkoa den esparruetan (Acosta, 2010).

Naturarekiko harmonia, bakea eta gizarte-oreka aldeztu duen jatorrizko herrien mundu-ikuskeraren berrartzean, Ongi Bizitzeak, ekonomia feministak bezala, bizitzaren desmerkantilizazioa lortu nahi du. Bestelako garapen bat bilatzea erronka da gizarte-mugimenduentzat, oro har, eta mugimendu feministarentzat, bereziki. Mugimendu feminista garrantzizko tresna izan daiteke Ongi Bizitzearen paradigma aberasteko, ezaririk dauden ereduak kolokan eta zalantzan jarri nahi dituelako, desberdintasunak eta bazterketak sortzen dituzten heinean.

Aspaldian, bai Latinoamerikan eta baita Europan zein Euskal Herrian bertan ere indarra hartzen ari den beste proposamena Ekonomia Solidarioa da. Ekonomia Solidarioa kontzeptuak gaurko gizartean ekonomiak duen rola ulertzeko modu berriak sustatzen ditu, eta erreferentzia egiten dio bai planteamendu teorikoei, bai errealitate sozioekonomiko eta instituzionalei, baita enpresa-praktika ezberdinei ere. Zentzu horretan, ekonomia solidarioa alderdi ezberdindun (ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak eta ingurumenekoak) fenomeno konplexua dela esan daiteke eta bizitzarako proiektu etiko bat eraiki nahi duela (Guridi eta Mendiguren, 2014).

Teoria gehienetan, ekonomia zientzia objektibo eta neutraltzat jo izan da. Horregatik, feministatzat jotzea nolabaiteko iraultza semantiko eta kontzeptuala izan da, eta aipatutako zientziaren objetibotasun eta naturaltasun horiek zalantzan jarri ditu. Bide beretik jarraituz, ekonomia erlazionatu izan ohi da errentagarritasuna, irabazia, eraginkortasuna, balio ekonomiko edo egoismo bezalako kontzeptuekin. Ondorioz, ikuspuntu konbentzional batetik, ekonomia solidario bezala sailkatzea ia oximoron bat izan liteke.

Ekonomia Solidarioak ekonomia egiteko alternatiba praktiko eta teorikoak bilatzen ditu, solidaritatean eta lanean oinarrituak, hain zuzen ere. Honelako ekonomiaren oinarria edo muina, maila guztietako jardueretan (enpresa, merkatu, politika publiko), erakundeetan eta instituzio ekonomikoetan elkartasun gero eta gehiago sartzea da (Razeto, 2009). Ikuspuntu praktikotik, Espainiar Estatuan, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioen Sarea (REAS) 1995. urtean sortu zen Ekonomia Solidarioa bultzatzeko, horrela jendarte bidezkoago eta solidarioagoa bermatuko dela uste baita. Gaur egun, REASen ehun entitatetik gora daude lurralde-sare eta sare sektorialetan banatuta. REASetik karta solidarioaren sei printzipio nagusiekin konprometitutako ekintza enpresarial, ekonomiko eta finantzarioak koordinatu eta bultzatzen dira⁴.

Pertsonen eta erakundeen arteko lankidetzak eta solidaritatea erdigunean

Solidaritatea funtsezko elementua da Ekonomia Solidarioarentzat. Ekonomia Solidarioaren ustez, pertsonen eta erakundeen arteko lankidetzak sustatu beharra dago, bidezko merkatu-harreman ekonomikoak eratu nahi izanez gero. Urteen joan-etorrian edozein herrik iraunkorra izan nahi badu, bere egitura ekonomikoa lankidetzan oinarritu beharko du, hauxe funtsezkoa baita gizarte-harremanetan. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, komunitateko kideak gara, eta, bertako familia zein gizarte arloko unitateen bidez, komunitate hori zenbait eratarik arduratzen da bizirauteko eta kalitateko bizimodua garatzeko behar ditugun zainketez. Giza bizitzaren izaera sozial hori eta beste pertsona batzuek bizirauteko eta garatzeko duten premia ez dira industrializazioaren aurretiko gizartearen ezaugarri bereizgarria, gizarte guztiena baizik.

Komunitatearen isolatzeak zorigaitzoko ondorioak ditu pertsonentzat. Horregatik, Adela Cortina filosofoaren hitzetan "gizakiaren sufrimendurik handiena bakardade erradikala da, ikusezintasunera, urruntasunera, bazterketarena. Ez baikara egun baten denontzat onak diren arrazoiengatik elkartutako gizabanako isolatuak, baizik sustraietatik lotutako gizakiak, geure bizitza elkarrekiko ezagutzan edo ukatzean eratzen dugunak" (Cortina, 2013).

Beste alde batetik, nahiz eta garapen teoria ortodoxoetan aurrerapen prozesu horien helmuga geurea bezalako masa-konsumoko gizarteetara heltzea izan, bertan lehenetsi diren zenbait balio, norberaren autonomia, kasu, praktikan oso mugatuak dira. Ekoizpen-maila eta batez besteko errenta-maila areagotu diren neurrian, gero eta zaurgarriagoak bihurtu dira biztanleak. Izan ere, gizarte horiek osatzen dituzten gizakien arteko elkarmenpekotasuna areagotzen da, lanaren banaketa oso nabaria delako. Heilbronerrek, esaterako, honako hauxe aitortu zuen XX. mendeko 60ko hamarkadan Ipar Amerikako Estatu Batuetako gizarteaz aztertu zuenean: zenbat eta "aberatsagoa izan nazioa, orduan eta agerikoagoa izango da bertako zenbat biztanle ez diren bakarrik eta laguntzarik gabe bizirauteko gai". Horrez gain, honako hauxe ere azpimarratu zuen: "gure oparotasuna bermatuta egongo da, pertsona-talde erraldoien lankidetzak antolatuta dagoen bitartean" (Heilbroner, 1964). Esaldi horiek euren testuinguru historikoan aztertuz gero, AEBetako barne ekonomiari buruz hausnartu genezake, baita nazioarteko harreman ekonomikoari buruz ere. Era berean, guretzat inspirazio-iturria eta oso adierazgarriak dira, lankidetzak gizartearen biziraupenean daukan garrantziari buruz hausnartzeko garaian.

4 [www.economiasolidaria.org/redes/reas_euskadi]

Ohiko ekonomiak, ostera, lehia lehenesten du sistema ekonomiko kapitalistaren funtzionamenduaren giltzarrietakoa izango balitz bezala, gure bizitzan elkarmenpeketasunaren eta lankidetzaren garrantzia onartzetik urruti. Izan ere, bere ustetan, emaitza ekonomikoak lortzeko bide bakarra lehia da, horrela lortzen baitira mozkin handiak eta kapitalaren metaketa. Jarduera ekonomikoen ikuspegi hegemoniko gero eta estuago horrek, apurka-apurka merkatuko jarduera ekonomikoa isolatu du esparru politikotik nahiz bizitzaren ugalketarako oinarritzkoak diren gainerako jardueretatik. Merkatuko ekonomiaren oinarria izan arren, euren kabuz araututako merkatuen falazia abian egon dadin, ezinbestekoa izango da "gizarteak nola edo hala haren eskakizunei men egitea [...]. Merkatu-ekonomiak industriako elementu guztiak hartu behar ditu kontuan, baita eskulana, lurra eta dirua ere. Edonola ere, eskulana eta lurra gizarte osoa osatzen duten gizakiak eurak baino ez dira, baita gizarte guztietako ingurune naturala ere. Elementu horiek merkatuko mekanismoan sartzen direnean, gizartearen beraren muina merkatuko legeen menpe jartzen da" (Polanyi, 2003).

Ekonomia solidarioak beharrezko lanetan jartzen du indarra

Ekonomia solidarioak lanaren helburua biztanleen benetako premiak estaltzea izan beharko lukeela aldeztu du. Horri esker, pertsonen euren gaitasunak garatu ditzakete, eta zaintzen esparruan egindako lana aldarrikatzen du, nahiz eta gizartean behar bezala baloratzeko eta desberdin banatuta egon (REAS, 2011).

Jose Luis Coraggiok proposatutakoaren arabera (Coraggio, 1999), Ekonomia Solidarioak "lanaren ekonomia" izeneko sistemarantz jo beharko luke. Lanaren ekonomiak lana bera baliabide nagusitzat hartu beharko luke, baina ez baliabide bakartzat. Azpisistema bat izango litzateke, eta horren helburua ez litzateke diru-kapitala eta kapital politikoa pilatzea, giza kapitala metatzea baizik: guztion bizitzaren ugalketa zabaldua, alegia. Ondorioz, ekonomiako sektore egituratua, antolatua eta autoeraturia izango litzateke, gizarteko kide guztien ugalketa zabaldua erdietsi ahal izateko. Ugalketa zabaltzen denean, ez da nahitaezkoa diru-sarrera gehiago eta ondasun material gehiago eskuratzeko aukera izatea. Bizi kalitateak hobera egin dezake honako arlo hauetan gertatutako aldaketen ondorioz: kontsumoaren kalitatea, gizarte-harremanetarako ereduak, habitata eta familia-unitateen bizitza elikatzen duen testuingurua.

Ekonomia Solidarioak ez du besteen lanaren esplotazioa ahalbidetzen, ez esklabotza eta biolentzia fiskoaren bidez lortutako dependentziarik, ezta besteen lanaren produktua jasotzea ere (Coraggio, 2011). Jendearen beharrian ekonomikoak asetzeko lan baldintza duinak eta kalitatezko enpleguak defendatzen ditu, baita erlazio komertzial eta produktiboak era adostuan eta justuan baloratzeko moduak ere (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014). Ekonomia Solidarioak, beraz, langile guztiei enplegu duinak eskaini beharko litzieke eta bermatu bizitza maila "ona" izateko diru-sarrera nahikoa. Beraz, gaur egun ematen ari den lan prekarietatearen prozesu gogorren kontra borrokatu beharko luke.

Ekonomia Solidarioak pertsonen kalitatezko bizitza mailan oinarritutako ekonomiaren alde egiten du, eta ordaindu gabeko zaintzak kalitatezko bizitza horren gakoa direnez, erakunde solidarioek erraztu beharko lukete bertako langileentzat lan produktibo eta erreproduktiboaren bateragarritasuna. Are gehiago, lan erreproduktiboaren banaketa emakume eta gizonen artean oso ezberdina denez eta Ekonomia Solidarioak berdintasuna indartzen duela kontuan hartuta, bere pertsonal maskulinoak zaintza-lan ez-ordainduetan erantzukizun gehiago hartzea bultzatu beharko luke.

Ordaindutako zaintzen kasuan, Ekonomia Solidarioko hainbat erakunde eskaintzen dituzte bai zaintza zerbitzu zuzenak (pertsonetikiko arreta), bai zeharkakoak (etxeko lanak). Gainera, gaur egun zerbitzu publikoak murrizten ari dira, eta oso nabarmenak dira atzerapausoak zaintza alorreko zerbitzu publikoetan, batez ere menpekotasunari lotutakoetan. Hori dela eta, oso garrantzitsua da mahai-gaineratzea Ekonomia Solidarioaren zeregina zaintzetan, baita entitate solidarioen erlazioa sektore publikoarekin eta ohiko sektore pribatuarekin ere.

6. Ondorioak

Sistema kapitalistaren aldeko ereduak merkatu-harremanak ekintza ekonomiko guztien erdigunean kokatzen ditu, eta bizitzaren iraunkortasunarekin erlazioaturiko ekintzak baztertu egiten ditu: osagai komertzialik ez dutenez hauek kontatzea oso zaila dela eta oso erraz baztertzeko modukoak direla arrazoituz⁵. Horrez gain, beste eredu ekonomiko batzuk jarraitzen dituztenak baztertzen ditu, eta merkatu kapitalistan parte hartzeko baliabide monetario nahikorik ez duten pertsonen beharrianak gutxien dituen. Horren aurrean, Ekonomia Solidarioak sistema ekonomikoaren ikuspegi alternatibo bat planteatzen du, bere printzipio eta helburuekin. Modu berean, pentsamolde feministak, garrantzi handia ematen dio ezberdintasunen ulermenari, jakina, hauei aurre egiteko helburuarekin. Eraldaketa soziala sustatu nahi da, pertsonak ondo bizi daitezen, eta berdintasunean eta bidezketasunean oinarritutako jendarteetan, bizitzeko sistema ekonomikoa sustatu nahi da. Eta eraikuntza hori pentsamolde postkoloniala eta ekologista barneratuz egin behar da.

Ekonomia Feministak, Gaitasunen Ikuspegiak eta Ekonomia Solidarioak aldarrikatzen dute pertsonak, giza harremanak eta oinarritzko beharren asetzeko ekonomiaren erdigunean kokatzea. Horrela, aurre egin nahi zaio gizarteak eraikitako nahiei eta norbanakoen irabaziak eskuratzea helburu duen masa-konsumoko gizarteari. Azken finean, Ekonomia Solidarioak eta Ekonomia Feministak interdependentzian, elkarrekikotasunean, demokraziaren eta gardentasunaren sustapenean oinarritutako harreman ekonomikoen defentsa partekatzen dute, beti ere bere ekintzen erdigunean zuzentasuna eta lankidetzak kokatuz.

Helburu solidarioak dituzten ekimen asko existitzen dira gaur egunean, nahiz eta oraindik ez diren behar bezain bistaratuak eta beharbada oraindik ez dauden elkarren artean ondo artikulatuak. Orain ikuspegi feminista eta solidarioa bateratu eta artikulatu behar dira: ekonomia solidario eta feministaren balioetan oinarritutako ongizate kolektiboa lehenesten duten gizarte ekintza forma berriak sustatu behar dira, eta pertsonen gaitasunak zabalduz, gizakien eta naturaren arteko bizitza harmonikoa garatu behar da. Horrek ekitatearen praktikan, erantzukizunean, demokrazia ekonomikoan eta giza ikuspegitik aberasten gaituzten balio guztietan sakontzea eskatzen du. Garaia da bide horretan aurrera joateko eta, horretarako, herrialde eta kontinente guztietako proposamen teoriko zein praktikoak elkarrekin partekatu eta elkarren arteko sareak sortu beharko dira. Gaitasunen ikuspegiaren, Ekonomia feministaren eta Ekonomia solidarioaren arteko erlazioen inguruan buruturiko hausnarketak bide horretatik doaz, eta ezinbestekoa ikusten dugu hauek bultzatzea eta ikusaraztea, horrela bidezkoagoa den mundu baten eraikuntzan aurrera egingo dugu eta.

Bibliografia

- ACOSTA, Alberto (2010): "El buen vivir, una utopía por (re)construir" in *Enfoques sobre bienestar y buen vivir*. CIP-Ecosocial. Madril: Fuhem.
- ARISTOTELES ([K. a. 330] 1997): *La Política*. Austral Arg.
- BEETHAM, Gwendolyn, eta DEMETRIADES, Justine (2007): "Feminist research methodologies and development: overview and practical application". *Gender & Development* Vol.15. Issue 2.
- BETTS, Sherry C. eta GLODEY, Patricia (2005): "A multidisciplinary NGO: the interface of home economics with gender and development", *Development in Practice*, 15.
- BOSERUP, Ester (1970) *Women's role in Economic Development*. New York: St. Martin's Press.
- CARRASCO, Cristina (1991): *El trabajo doméstico. Un análisis económico*. Madril: Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.
- CHARUSHEELA, S. eta ZEIN-EL ABDIN, Eiman (ed.) (2001): *Postcolonialism meets economics*, Routledge.

5 Waring, 1988, eta Pujol, 1992, Jubetok, 2007an aipatuak.

- CORAGGIO, José Luis (1999): "De la economía de los sectores populares a la economía del trabajo". "Economía dos setores populares. Entre a realidade e a utopia" mintegian aurkezturiko komunikazioa, CAPINA, CEADE, CERIS, CESE, eta UCSAL.
- CORAGGIO, José Luis (2011): *Economía Social y Solidaria. El trabajo antes que el capital*. Abya-yala, Flacso.
- CORTINA, Adela (2013): *¿Para qué sirve realmente la ética?*. Paidós Ibérica.
- FEDERICI, Silvia (2013): *Revolución en punto cero: Trabajo doméstico, reproducción y luchas feministas*, Traficantes de sueños.
- GURIDI, Luis eta MENDIGUREN, Juan Carlos (2014): "La dimensión económica del Desarrollo Humano Local: La economía social y solidaria". HEGOA Institutoa
- GRAMSCI, Antonio (2013): *Antología. Selección, traducción y notas de Manuel Sacristan*. Akal
- HEILBRONER, Robert L. (1964): *La formación de la sociedad económica*. Fondo de Cultura Económica. Mexico.
- HERRERO, Yayo (2014): "Economía ecológica y economía feminista: un diálogo necesario", in CARRASCO, Cristina (arg.) *Con voz propia. La economía feminista como apuesta teórica y política*. La oveja Roja. Viento Sur Bilduma
- JUBETO, Yolanda (2015): "Sistema kapitalista patriarkalaren aurrean, zenbait hausnarketa ekonomia feministatik" in Vazquez, Unai eta Josemi Huarte (Koord.) *Irabazitako Hamarkada Amerika Latinan. Herri Borrokei Begirada Analitikoak Aktore Propioen Eskutik*. Askapena.
- JUBETO, Yolanda (2011): "Debates sobre desarrollo y bienestar desde la economía feminista", *Desarrollo, Cooperación y empresas transnacionales. Pueblos aldizkari berezia*.
- JUBETO, Yolanda (2007): "Aurrekontu publikoek sexurik ote dute? Genero-aurrekontuen osagai eta erronka nagusiak". *Uztaro*, 61. 25-44 orr.
- KABEER, Naila (1998): *Realidades trastocadas. Las jerarquías de género en el pensamiento del desarrollo*, México Hiria, Paidós.
- LARRAÑAGA, Mertxe (2014): "Contando tiempos y descifrando trabajos en épocas de crisis", in CARRASCO, Cristina (Koord.). *Con voz propia*. Viento Sur.
- LARRAÑAGA, Mertxe, JUBETO, Yolanda eta DE LA CAL, M^a Luz (2012): "La diversidad de los modelos de participación laboral de las mujeres en la UE-27". *Lan Harremanak*, 25. 291-327
- LARRAÑAGA, Mertxe eta JUBETO, Yolanda (2011): "El desarrollo humano local: aportes desde la equidad de género", *Cuadernos de Hegoa*, 56.
- LEWIS, W. Arthur (1955): *The Theory of Economic Growth*, London: Allen & Unwin.
- MIES, María eta SHIVA, Vandana (2016): *Ecofeminismo*. Icaria.
- MELLOR, Mary (2005): *Feminismo y ecología, Siglo XX*
- NUSSBAUM, Martha (1999): "Women and equality: The capabilities approach", *International Labour Review*, 138.
- NUSSBAUM, Martha (2012): *Crear capacidades: Propuesta para el Desarrollo Humano*, Paidós Ibérica.
- PARPART, Jane, CONNELLY, Patricia, and BARRITEAU, Eudine (2000): *Theoretical perspectives on gender and development*. Commonwealth of learning.
- PÉREZ OROZCO, Amaia, PAIEWONSKY, Denise y GARCÍA, Mar (2008): *Cruzando fronteras. Inmigración y desarrollo desde una perspectiva de género*, INSTRAW.

- POLANYI, Karl (2003): *La Gran Transformación: Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*, Fondo de Cultura Económica: Mexico
- PUJOL, Michèle A. (1991): *Feminism and Anti-feminism in Early Economic Thought*. Vermont: Edward Elgar
- RAVAZI, Shahrashoub eta MILLER, Carol (1995): *From WID to GAD: conceptual shifts in the Women and Development Discourse*, UNRISD/UPND.
- RAZETO, Luis (2009): *Lecciones de Economía Solidaria*. Uvirtual.net arg.
- REAS (2011): *Carta de Principios de la Economía Solidaria*. Sareen Sarea.
- RIVERA CUSICANQUI, Silvia (2010): *Violencias (re) encubiertas en Bolivia*. Piedra Rota/La mirada salvaje Arg.
- SHIVA, Vandana (1995) *Abrazar la vida: mujer, ecología y desarrollo*. Horas y Horas.
- SHIVA, Vandana (2006): *Manifiesto para una democracia de la tierra. Justicia, sostenibilidad y paz*. Paidós Estado y sociedad 144
- SOUSA, Boaventura de (2005): *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*. Madril: Trotta/ILSA.
- SPIVAK, Gayatri Ch. (1988): "Can the Subaltern speak?" in NELSON, Cary, and GROSSBERG, Lawrence. (arg.): *Marxism and the interpretation of culture*. Macmillan Education: Basingstoke, 271-313.
- REDDOCK, Rhoda (2000): "Why gender? Why development?" in PARPART, Jane, CONNELLY, Patricia, and BARRITEAU, Eudine (2000): *Theoretical perspectives on gender and development*. Commonwealth of learning.
- ROGERS, Barbara (1980) *The Domestication of Women: Discrimination in Development Societies*. London: Kogan Page.
- ROSTOW Walter W., *Las etapas del crecimiento económico. Un manifiesto no comunista*, Madrid, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, 1993.
- SOUSA SANTOS, Boaventura de (2005): *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*, Trotta/ILSA.
- UNDP (1995): *Human Development Report 1995. Gender and Human Development*.
- WARING, Marilyn (1988): *If women counted*. London: Macmillan.
- ZABALA, Idoe (2010): "Estrategias alternativas en los debates sobre género y desarrollo", *Revista de "Economía Crítica"* 9.

- 1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
- 2. Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, Hegoa Institutua eta EKOPOL Ikerketa-taldea, Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). 2017.
- 3. Garapena feminismotik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

